

# Jabegoa: herritarren artean elkarrekin kudeatu

Etxalde elkarteak 2007an sortu zen, etxebizitzaren merkatua neurtzeko helburuarekin, espekulazioaren kontra borrokatzen da. Elkartasuna, ondarearen eta euskal kulturaren atxikimendua defendatu nahi ditu. Mintzatu gira Beñat Etchebest elkarte buruarekin.



## Etxebizitzaren egoera

Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren merkatuaren bilakaera dorpea izanez, edozein herritarrek egoitza baten atzemaiteko zailtasunak izanez, Etxalde elkarteak sortu zen. Beñat Etchebest-ek erraiten zaukun egoera larritzera doala. Bizimoduak aldatu dira, etxetik lanean ari direnak joano eta gehiago badaude, horrez gain erostunen merkatua zabaldu dela zioen, "auzoko merkatua", "europar merkatua" bilakatu da. Etxebizitza merkatua neurtzeko, elkarteak jabe-goari buruz gogoeta eramana du. "Jabego individual" batetik "jabego partekatua" izan dadin xedea du, kontzepzio berria proposatzen du, ontasun kolektibo baten moduan. Etxalde sail horretan esperientzia badu, abiatu zuen lehen proiektua 2005ean Maulen izan zen. Elkarteak eraikin bat erosi zuen, etxebizitza sozialak eta lokal komertzial bat egin ahal ukan zuen. Ahalbidetzen du banakako jabetzatik ateratzea, espekulazioaren arriskua saihestuz. Ildo beretik, ontasunen gozamenari buruz gogoeta eramana du, ondokotzat direnek ez dezaten nolanihi ontasun higiezinak sal.

## Jabe-alokatzaille sistematik, jabetza estatusera

Eskema tradizionalatik eta "jabe-alokatzaille" menpekotasunetik ateratzeko, 2018an elkarteak beste urratsa eman du. Egoitzaren okupatzaileari jabetzarako estatua proposatuz. Lehengo belaunaldien artean etxe partekatzeak egiten ziren bezala, elkarteak ontasun partekatu baten forman, jabetzaren kontzepzio berria proposatzen du. Etxalde bere gain hartzen du ontasunaren jabetza-hutsa (*nue-propiété*) eta gozamina jabe berriari heldu zaio. Azken honek bere egoitza estatu onean atxikitzeaz gain, eraikin bereko auzoekin elkar ongi bizitzea ahalbidetzen du. Etxalde, jabetza kolektiboaren bitartez, eraikin hauek euskal jendartean «ondare komunean» atxikitzen ditu, nolanihi saihestuz, kapital-irabazia egin nahi dutenak tratatuz. Horrela, jabetza pribatu partekatua sortzen da, etxebizitzaren balioen inflaziotik babestuta. Jabetza eskuratzen dutenek, etxebizitza hobetzeko eskubidea emaiten die eta hiltzean

beraiek aukeratzen duten pertsona(k) ondokotzat egiten dute. Etxalde, jabetza kolektibo horren bitartez, eraikin hauek ondare bateratuan atxikitzea ahalbidetzen du, oinordekoek araudia errespetatu behar dute. Horrela espekulazioaren merkatua zaindua da. Ibilmolde horren bidez, Etxalde jabetza espekulazio merkatutik ateratzeko aukera emaiten die. Eskuragarri izaitzeko, elkarteak araudi batzuk plantan ezarri ditu. Egoitza okupatuko duten pertsonak bertakoak izan behar dira eta soldata gutien irabazten dutenek lehentasuna dute.

## Bokalen proiektu aitzinkorra

Beñat Etchebest-ek esplikatu dauku, Bokalen estatu onean den 12 apartamendukako eraikina salgai zela jakin zutelarik, saltzeaz arduratzen zen agentziarekin harremanetan sartu zirela. Etxalderen proiektua jabeari azaldua izan da, elkarteari saltzea onartu duena. Mementoan administrazio papertan baldin badira, notarioan salmenta-hitzarmena izenpetzeko Etxalde 100.000€ eman beharko ditu. Sozial sareen bidez 5 astez behar den diru kopurua atzemana izan da, ez da dohaintza bat baina diru-prestatzea, elkarteak 4 hilabete dituz berriz pertsona horien ordaintzeko.

Lehen urrats horiek egin ondoren, bigarren etapa erosteko diru bilketa kanpainaren abiatzea izanen da, egoitza horren balioa 1,8 milioi eurokoa da. Gaur-egun eraikin horretan bizi diren pertsonekin biltzea eta elkartearen proiektua azaltzea izanen da. Hauek erosteko ahalmena prezio erdian ukanen dute, horrez gain 3€ metro karratua hilabetero ordaindu beharko dute. Etxalde pentsatzen du apartamendu salmentekin 900.000€ eskuratzea, beste erdia mailegu baten bidez egin izanen da, itzultzeko 35 urte ukanen ditu.

## Elkartearen hobeki ezagutzeko eta laguntzeko

Etxalderekin harremanetan sartzeko edo(ta) diru bilketan parte hartzeko [www.etxalde.eu](http://www.etxalde.eu) bidez egin litzateke. Astelehen arrats guziz (19:00) bideokonferentziak antolatzen ditu, edozeinek agertu helbidetik parte harlezake, bere ikusmoldearen emaiteko eta elkartearen ibilbidea ezagutzeko.

M.O.



Beñat Etchebest